



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Miren Illarregui Belarra
Pello Ariztegi Etxepeteleku
Juana María Altxu Juanikorena
María Larretxea Etxeberia
José María Alzuri Vértiz

2020ko azaroaren 25ean, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

Hasteko, azaroaren 6an ospatutako Osoko Bilkuran onartu zen 1/2020. Aurrekontu aldaketa **bertan behera uztea onartu du** Udalbatzak bertaratu diren zinegotzi guztien artean. Izan ere, eta Nafar Gobernuaren baimena eskuratu ez izanagatik, planteaturiko lurzatiaren salerosketa atzeratzea beharrezkoa da.

Bilkura hasi aurretik gai ordenean ez zetozen bi gai sartzeko premia azaldu du Udalburuak, “Aurrekontu aldaketak: 2/2020, 3/2020 eta 4/2020.” eta “2021eko Inauteriak” hain zuzen ere. Ikusita urte bukaera dela eta, aurrekontu aldaketak onartzeko eta prentsa oharra bidaltzeko dagoen premia, **gaiak sartzea erabaki** da bertaratu diren zinegotzi guztien aldeko bozkarekin.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak erabaki du aurreko bilkuretako aktak **onartzea**.

Alde 6
Abstentzio 1

2. 2019KO KONTUEN LIKIDAZIOA ETA IXTEA.

Udalbatza kontuen batzorde gisa arituz 2019ko kontuen erakustaldi publikoan alegazioarik ez dela izan ziurtatu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 2019ko kontuen likidazioa behin betiko onartu eta ixtea.

2.- 2019ko kontuen likidazioa Nafar Gobernura bidaltzea.

3. 2021EKO AURREKONTU ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

Udalburuak, aurrekontuak eta Plantilla organikoa arukeztu ditu. Udalbatzak hauek aztertu ostean, Udalburuak bozkatzera deitu du. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6
Abstentzio 1

1.- 2021eko Aurrekontu eta Plantilla Organikoari hasierako onespina ematea.

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Akordioaren berri NAO-n eta Iragarki Oholean ematea.

*Hurrengo puntuaren eztabaida hasi aurretik Miren Illarregi Belarra zinegotzia bilkura aretotik atera da.

4. 2. POLIGONOKO 9. LURZATIKO XEHETASUN AZTERLANA: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu eta udal arkitektoen txostena aurkeztu du. Gaia azaldu ondoren bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 2



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- 2. Poligonoko 9. Lurzatiaren Xehetasun Azterlanari hasierako onespena ematea.

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 20 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Erakustaldi publikoa pasatu ondoren ez badira alegaziorik aurkeztu, hasierako onespena behin betiko onespena bihurtuko da.

3.- Akordioa NAO-n, egunkarietan eta Iragarki Oholean argitaratzea.

4.- Akordioa aipatutako lurzatiaren aldameneko lurzatiaren jabeen jakinaraztea.

*Miren Illarregi Belarra zinegotzia berriz ere sartu da bilkura aretoan.

5. FAROLA BERRIEN KOKAPENA.

Udalburuak azaldu du Lasagako basuren ondoan, parke berriaren ondoan eta Lasagatik dendara doan bidean hiru farola behar direla, eremuak ez baitaude behar adina argituak. Hiru farola hauek jartzeko, Calle Lasagako 22 eta 24. etxeen arteko hiru farola kenduko dira, hemen dauden farolak gehiegizkoak direla ulertzen delako. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengo erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Calle Lasagako 22 eta 24. etxeen arteko hiru farola kentzea.

2.- Kendutako farolak, Lasagako basuren ondoan, parke berriaren ondoan eta Lasagatik dendara doan bidean jartzea.

3.- Akordioa interesatuei jakinaraztea.

6. HIRIGINTZA ESPEDIENTEA: 2. POLIGONOKO 2. LURZATIA.

Udalburuak azaldu du, lurzati honetan obrak burutu direla. Izan ere, irailak 24ko Osoko Bilkuran, obra baimena ukatzea erabaki zen Rafael Unchalo lurzatiaren jabeari. Eskatzen zuen obra mota eta azalerarengatik, Udalbatzak eskaera ukatatzea erabaki zuen



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Unchalo jaunak proiektua aurkeztu ezean. Gainera Unchalo jaunari aukera eman zitzaion nahi bazuen arkitektoarekin kontsulta egiteko, berak ebatzi zezan zer eta nola obra egin zezakeen aipaturiko lurzatian. Ikusita obrak baimenik gabe burutu direla, Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Zehapen espedientea eta hirigintza espedientea abiaraztea, obra baimenik gabe egiteagatik eta egindako obrak legeztagarriak diren edo ez ebazteko.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

7. AURREKONTU ALDAKETAK: 2/2020, 3/2020 ETA 4/2020.

Udalburuak kontuhartzaileak egindako txostenak aurkeztu ditu. Txostenak aztertuta hauek dira proposatzen diren aurrekontu aldaketak.

Alde batetik, hurrengo diru sarrera partidak probestuko lirateke:

1-7508000 SUBVENCIÓN LUCHA CONTRA LA DESPOBLACIÓN	16.518,00
1-3380-22620 FIESTAS Y ROMERÍAS	11.800,00
1-7508003 SUBVENCIÓN SEDE ELECTRÓNICA	1.279,50
1-3380-22620 FIESTAS Y ROMERÍAS	1.279,50

Eta aipaturiko diru sarrerak hurrengo gastu partidetara bideratzea proposatzen da:

1-450-6210001 ELIZABIDEA	16.518,00
1-1510-21000 CONSERVACIÓN Y REPARACIÓN DE CALLES Y CAMINOS	11.800,00
1-9200-64100 SEDE ELECTRÓNICA	2.559,00

Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Alde 6

Abstentzio 1

1.- 2/2020, 3/2020 eta 4/2020 aurrekontu aldaketak onartzea.

2.- 3/2020 eta 4/2020 aldaketak erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

8. 2021EKO INAUTERIAK.

Udalburuak azaldu du 2021eko inauterien inguruan bilera bat ospatu zela Ituren eta Zubietako Udalen artean. Gaur egungo egoera dela eta komenigarria ikusi zen 2021eko inauteriak bertan behera uztea. Gaia azaldu ondoren bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- 2021eko Inauteriak bertan behera uztea.

2.- Egoera jakinarazteko, hurrengo prensa oharra bidaltzea inguruko komunikabideetara:

“PRENTSA OHARRA

Ituren zein Zubietako Udalek, azaroaren 25ean ospaturiko Osoko Bilkuretan, 2021eko inauteriak bertan behera uztea erabaki dugu, aurtengo herriko besta eta hainbat ospakizunekin egin bezala. Gaur egun bizi dugun osasun egoera dela eta, zentzuzko ikusi dugu hainbeste jende erakarri eta pilatzen duen ospakizun hau bertan behera uztea. Horregatik, Ituren zein Zubietako herriei eta haietara hurbiltzeko intentzioa zuen jendeari, harturiko akordioa jakinarazi nahi diegu, ospakizunik ez egitea eta herrietara ez hurbiltzea eskatuz.

NOTA DE PRENSA

Los Ayuntamientos de Ituren y Zubietako, en los Plenos celebrados el 25 de noviembre, hemos decidido suspender los carnavales del año 2021, siguiendo el criterio establecido con las fiestas patronales y otras celebraciones de este año 2020. Vista la situación sanitaria actual se ha visto necesario suspender una celebración que atrae y junta a tanta gente. Por lo expuesto, se informa del acuerdo



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

adoptado a los pueblos de Ituren y Zubieta y a las personas que tenían intención de acercarse, pidiendo que no se hagan celebraciones y que la gente no acuda a los pueblos.”

3.- Akordioa web orrian eta Iragarki Oholean argitaratzea.

9. ESKAERAK

5.1.- Fermín Goizueta Apezteguía jaunak pago bat aprobetxatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Aprobetxamendua onartzea eta Goizueta jaunari basozainak egindako balorazioaren arabera 18 euro kobratzea aprobetxamenduarengatik.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.2.- Fermín Goizueta Apezteguía jaunak bi haritz amerikar eta pago bat aprobetxatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak **hurrengoa erabaki du**:

Alde 6
Abstentzio 1

1.- Haritz amerikar baten (bietatik bat) eta pagoaren aprobetxamendua onartzea eta Goizueta jaunari basozainak egindako balorazioaren arabera 27 euro kobratzea aprobetxamenduarengatik.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

*Ainhua Bereau Alchu zinegotzia sartu da bilkura aretoan.

5.3.- Tiburcio Apezteguía jaunak kanpo santuan hilobia egiteko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du**:



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

1.- Hilobia egiteko baimena ematea.

2.- Hilobia egiteko baimenaren baldintzak kanpo santua arautzen duten ordenantzen arabera izango dira. Akordioarekin batera ordenantzen kopia emanen zaio eskatzaileari.

3.-Akordioa interesatuari jakinaraztea.

5.4.- Blanca Urroz andreak San Joaquín-era doan pistaren ezkerreko aldean hondakinak bota dituztela jakinarazi du. Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

1.- Jakinaren gainean gelditu dela, eta hondakinak botatzearen arduraduna nor den jakitekotan behar diren tramiteak abiaraziko direla burututako arau haustea zigortzeko asmoz.

2.- Akordio interesatuari jakinaraztea.

5.5.- Elvira González andreak, Maizeneako etxearen balkoian izan diren arazoak ekiditzeko (kamioiek izandako istripuak sorturiko kalteak) neurriak hartzea eskatzen dio udalari. Zehazki, semaforoa jartzea, balkoiak daudela ohartarazten duen seinaleak jartzea, abiaduraren murriztea onartzea, aparkatzeko debekuak egitea proposatu du. Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

1.- Aparkatzea ekiditzeko behar diren neurriak hartzea. Batez ere, zubiaren ondoan dagoen eremuan kotxeak aparkatzea ekiditzeko asmoz.

2.- Interesduna hurrengoaz informatzea:

- Abiadura 30 km/ordura murriztua dagoela herria zeharkatzen duen errepidean,
- Abiadura gehio murrizteko “paso sobreelevado” deiturikoak jartzeko eskaera egin zela Nafarroako Gobernuan, hauen ezezkua jasoz.
- Ez dela semaforoa jartzeko aukera baloratzen.

3.- Akordio interesdunari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5.6.- Abarun Aterpetxeko jabeak Udaletxeko kideekin bilera ospatu ostean egoeraren berri eman dute. Izan ere, eta osasun egoera dela eta, jardueraren biziraupena kolokan dagoela azaldu dute. Egoera horrelakoa izanda Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Kontratuaren negoziaketa berriz ere egitea.

2.- Momentuz, abendura arte berdin jarraitzea eta proposatutako geldialdia onartzea urtariletik aurrera egoeraren bilakaera nolakoa den ikusiz.

3.- Kontratu etena irauten duen bitartean eta alokairua ez ordaintzearen truke, Abarun Aterpetxeko kideei mantenu lanak bere gain har dezaten eskatzea.

4.- Urria eta azaroa bitarteko egoera dela eta, urriak 15etik azaroak 15era doan alokairuaren kopuru proportzionala ez kobratzea.

5.- Akordio interesatuari jakinaraztea.

5.7.- Askin Haur eskolak eskatu du Udalak bere gain har dezala, haur eskolara doazen umeen (Iturengoak diren) familien matrikularen kostuaren zati bat.. Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Iturengo Udalak ez duela aipaturiko kostua bere gain hartuko, zerbitzua disfrutatzen duenak ordaindu beharko duela hain zuzen ere eta ez herri osoak.

2.- Akordio interesatuari jakinaraztea.

10. MOZIOAK

Udalburuak Nafarroako Saharar Ordezkaritzak NUKF-en bitartez jakinarazi duen gutuna irakurri du. Gutuna irakurri ostean Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

1.- Marokiar estatuak burututako ekintza armatuak gaitzestea.

2.- Saharako herriari elkartasuna erakustea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

3.- Saharar herriaren autodeterminaziorako eskubide zilegiekin bat egitea.

11. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (58/2020. ebazpenetik 64/2020. ebazpenera) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

12. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: 2021eko egur loteen eskaera eta izena emandakoen zerrenda; Nafar Lansarek emandako diru laguntza 51 urtetik gorakoen kontrataziorako; Kantauriar Konfederazio Hidrografikoak emandako obra baimenak Javier Iñigo Gatearena jaunari eta Nafar Gobernuari (A/31/03947 eta A/3104001 ebazpenak); Rafael Unchalo jaunak altan emandako abereak 2. Poligonoko 2. Lurzatian (15 ardi latxa); Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak –José Martín Sladías Alchu—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailak emadako oihan aprobetxamendurako baimenak –Beatriz Miqueo Zugarramurdi eta Marta Legazcue Goñi—; Landa Garapeneko, Ingurugiroko eta Toki Administrazio Sailak emadako landaketarako baimenak –Marta Legazcue Goñi—; Cedernak Alkateekin, PAOCaren inguruan, ospaturiko bileraren akta; Nafarroako Gobernuak Administrazio Elektronikoaren ezarpena egiteko emandako diru laguntza; Nafarroako Gobernuak NASERTIC enpresari emandako Ingurugiro Afekzioen Baimena CT Zubitetaraino fibra optikoa eramateko hargunea burutzeko; Nafarroako Gobernuak egindako jakinarazpena Toki Ogasunen 2/1995 legearen aldaketa egiteko proiektuaren inguruan; Osasun Zerbitzuak eta Malerreka Udaletxeek ospatutako bileraren akta, COVID garaian lekuko mediku kontsulten egoeraren inguruan;

10. GALADE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 16:50ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745